Gestiker
investigación cualitativa

# DINAMIZACIÓN DE FOROS DE AGENDA 21 LOCAL EN ABADIÑO

DURANGALDEKO UDAL TALDE 21

# TOKIKO AGENDA 21eko FOROEN DINAMIZAZIOA ABADIÑO

udalsarea21
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

*ABADIÑO, 2011ko azaroaren 23a*
*ABADIÑO, 23 de noviembre de 2011*

| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2011/11/23<br>**Fecha**: 23/11/2011 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Casa Cultura ERROTA (Matiena)<br>**Lugar**: ERROTA Kultur Etxea (Matiena ) |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes**

**Udaletxeak / Ayuntamientos**

- Jose Luis Navarro (Alkatea/Alcaldesa)
- Andrés Fernández (Técnico en Sostenibilidad/ Iraunkortasun Teknikoa)

**Herritarak / Ciudadania**

- 15 herritar / 15ciudadanos

**Kontsultoria / Consultora**

- Nahia Larrabeiti (Gestiker)

| **1. Bienvenida y exposición de los objetivos** | **1. Ongietorria eta aurkezpena** |
|---|---|
| Agradecimiento y bienvenida por parte de la consultora encargada de dinamizar el foro. Se contextualiza el encuentro dentro del marco de Agenda Local 21 y se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos del foro:<br><br>• Situación de Abadiño dentro de la Agenda Local 21.<br>• Respuesta a las propuestas ciudadanas del último Foro AL21<br>• Evaluación del Programa de Actuaciones Sostenibles Anual 2011**.**<br>• Actuaciones Comarcales Sostenibles.<br>• Propuesta de actuación sostenible municipal para el 2012. | Entitate Koordinatzaileak ongietorria eta eskerrak ematen die bertaratutakoei Tokiko Agenda 21eko azalpen bilerara hurbiltzearren. . Lehendabizi, eguneko gai zerrenda azaltzen da, hala nola, foroko helburuak:<br><br>• Abadiñoko egoera Tokiko Agenda 21an.<br>• TA21eko azken foroan azaldutako herri proposamenei erantzuna.<br>• 2011eko Ekintza Iraunkorren Programaren ebaluaketa.<br>• Eskualdeko Ekintza Iraunkorren zerrenda.<br>• 2012 urterako Udaletxeko proposamen iraunkorren zerrenda. |



EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

| 2. Situación de Abadiño dentro de la AL21 | 2. Abadiñoko egoera Tokiko Agenda 21an |
|---|---|
| A modo de inicio, la consultora comienza ubicando el foro de evaluación de AL21 dentro de un calendario cíclico que anualmente los Ayuntamientos y municipios llevan a cabo como ideario metodológico de la gestión sostenible.<br><br>A continuación se realiza un recordatorio del significado de la AL21, y expone la importancia de ésta dentro de la gestión municipal.<br><br>Finalmente, se subraya la relevancia de la participación ciudadana en los foros de AL21 como espacios de interrelación entre la sociedad municipal y Ayuntamiento, con el objetivo de intercambiar entre todos los agentes el devenir de la AL21 en Abadiño. | Tokiko Agenda 21eko Ebaluaketa Foroa, Udaletxe eta udalerrien egutegi zikliko baten barruan sartuta dagoela ezagutarazten da, beti ere eremu iraunkorra kontutan izanik.<br><br>Jarraian, Tokiko Agenda 21aren zentzua azaltzen da, udal kudeaketaren barruan duen garrantzia azpimarratuz.<br><br>Azkenik, TA21eko foroak herritarrak eta Udaletxeko agintariak biltzen dituen gune bezala azaltzen da, non herri partaidetza ezinbestekoa den elkargune hauek aurrera atera ahal izateko. Danok batera Abadiñoko etorkizunaren inguruko gaien inguruan mintzatzea du helburu. |

| 3. Respuesta a las propuestas ciudadanas de 2010 | 3. 2010eko herri proposamenei erantzuna |
|---|---|
| El alcalde toma la palabra y comenta que entre él y el técnico de sostenibilidad van a ir explicando las principales actuaciones municipales y que posteriormente los ciudadanos/as asistentes plantearán sus preguntas, comentarios, sugerencias y propuestas.<br><br>Se hace un resumen valorativo de las propuestas y sugerencias que en el Foro de AL21 de 2010 comentaron | Alkateak hitza harztzen du, bera eta iraunkortasun teknikoaren artean udal ekintza garrantzitsuenak azaltzen joango direla esateko eta geroago herritarrek euren galdera, iruzkin, iradokizun zein proposamenak egiteko denbora izango dutela argitzeko.<br><br>2010ean ospatu zen TA21eko Foroan jaso ziren iradokizun eta proposamenak gogorazten dira eta hauen |

| | |
|---|---|
| los ciudadanos/as asistentes. | inguruan balorazio labur bat egiten da. |
| ***Sobre la limpieza de los contenedores…*** Se indica que se limpian cuando se considera necesario y no tanto una vez al año. Se trata de un trabajo de la Mancomunidad que aunque suele hacerse anualmente depende de las condiciones meteorológicas. | ***Kontainerren garbiketaren inguruan…*** Beharra ikusten denean garbitu egiten dira, eta ez urte betero zehazki. Amankomunazgoaren ardura da eta honek urtero egiteko ohitura duen arren, baldintza meteorologikoen arabera egiten den lana da. |
| El alcalde indica que los soterrados no los limpia la Mancomunidad y el coste es directo del Ayuntamiento, que está intentando que los contenedores soterrados de los municipios de la Mancomunidad los gestione esta última. | Lurperatutako kontainerrak ordea ez ditu Amankomunazgoak garbitzen eta kostea Udaletxearena da zuzenean. Azken hau, lurperatutako kontainerren kudeaketa Amankomunazgoaren esku pasatzea saiatzen ari da. |
| ***Sobre las aceras de Matiena-Astola y sobre las barreras arquitectónicas de Traña-Astola…*** El alcalde reconoce el problema de accesibilidad. Indica que no se ha ejecutado y que es un tema pendiente para el 2012. | ***Matiena-Astolako espaloien eta Traña-Astolako barrera arkitektonikoen inguruan…*** Irisgarritasun arazoa onartzen du Alkateak. Bi proiektu hauek gauzatu ez direla argitzen du eta 2012an egingo direla. |
| Se indican las acciones de accesibilidad desarrolladas (aceras, barandillas…) durante el 2011, especialmente en ciertos tramos municipales (sobre todo, en Matiena). | 2011n zehar burutu egin diren irisgarritasun lanak gogoratzen dira (espaloiak, barandak…) bereziki herriko leku konkretuetan (Matienan gehien bat). |
| Se reconocen más carencias en Zelaieta, así como la necesidad de un proyecto de reestructuración completa de la zona. | Zelaietak gabeziak dituela onartzen da eta auzoa bere osotasunean berregituratzeko proiektua gauzatzearen beharra ere azpimarratzen da. |
| En estos momentos el Ayuntamiento está atendiendo zonas concretas (San Andrés, zona de la iglesia…) para mejorar la accesibilidad y el espacio para la gente. | Udaletxeak jendearentzako irisgarritasuna eta espazioa hobetzeko lanak udalerriko gune konkretuetan egiten ari dela adierazten da (San Andres, elizako ingurua…). |
| ***Sobre el paso de peatones en la calle Iturritxo…*** El proyecto está ejecutado. Se han hecho dos pasos de cebra elevados para garantizar la seguridad y | ***Iturritxo kaleko oinezkoentzako igarobidearen inguruan…*** Proiektua eginda dago. Segurtasuna eta irisgarritasuna ziurtatzeko bi igarobide egin direla |


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

| | |
|---|---|
| accesibilidad.<br><br>***Sobre el aparcamiento…*** El Ayuntamiento reconoce el problema de aparcamiento en superficie que tiene Abadiño. Se va ha realizar una encuesta sobre el interés real que la ciudadanía tiene en la compra de parcelas, y la intención es hacer un aparcamiento en la plaza del quiosco (Matiena).<br>Existe un borrador de proyecto de un aparcamiento subterráneo de dos plantas. Se espera que en 2012 se inicie la ejecución de las obras, que llevarán alrededor de año y medio. Además, se aprovecharía para reurbanizar la plaza y mejorar la accesibilidad de las calles del entorno. La idea es peatonalizar toda la zona.<br>Se indica que no supondría ningún coste para el Ayuntamiento ya que el proyecto lo desarrollará una empresa privada.<br>Un ciudadano comenta la posibilidad del alquiler pero se aclara que la idea del promotor en principio es hacer parcelas para la venta. Se plantea también la posibilidad de aparcamiento público (además de comprar) pero se incide en que es un tema a negociar con el promotor por la cesión del suelo.<br>Se estima que el parking tendrá en torno a 200 plazas y que la clave de la viabilidad del proyecto está en ver si hay demanda real para la compra de plazas. | argitzen da.<br><br>***Aparkalekuaren inguruan…*** Udaletxeak, gainazalean aparkatzeko Abadiñok daukan arazoa onartu egiten du. Aparkaleku plazak erostearen inguruan dagoen interesa jakiteko inkesta bat egingo da herritarren artean, eta Matienako enparantzaren azpian parking bat eraikitzea da intentzioa.<br>Bi pisuetako lurpeko aparkaleku bat egiteko proiektuaren zirriborroa eginda dago. 2012an, bi urte irainduko duen proiektu hau martxan jartzea espero da. Horrez gain, plazak diseinu berri bat hartuko du eta honen eta inguruko kaleen irisgarritasun baldintzak hobetu egingo dira. Ideia plaza inguru guztia oinezkoentzako bihurtzea da. Lanek ez dute Udaletxearentzako kosterik izango, enpresa pribatu batek burutuko ditu.<br>Herritar batek alokairuaren ideia proposatzen du baina momentuz sustatzailearen asmoa salmenta dela azaltzen zaio. Aparkaleku pribatuaz gain, aparkaleku publikoaren ideia ere planteatzen da, baina sustatzailearekin negoziatu beharreko gaia dela argi usten da.<br>200 kotxeentzako lekua izango duen aparkalekua izango litzateke eta proiektua aurrera eramateko gakoa, herritarren artean dagoen benetako erosketa eskaera izango da. |



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

| 4. Evaluación de la Actuación Sostenible de 2011 | 4. 2011ko Jarduera Iraunkorren ebaluaketa |
|---|---|
| Toma la palabra el técnico de sostenibilidad para comentar lo ejecutado en el 2011.<br><br>▪ **Energías renovables:** Hay un proyecto de calefacción por distrito (district heating) con combustible de biomasa (astillas de madera) para satisfacer la demanda de calefacción y A.C.S de las escuelas de Traña-Matiena. Así mismo se aprovecha la instalación para dotar de dichos servicios de calefacción y A.C.S a distintos inmuebles del centro, como los vestuarios del pabellón multiusos, el frontón y las guarderías.<br><br>Dada la enorme extensión forestal propiedad del Ayuntamiento de Abadiño, se está estudiando, dar un valor añadido al sistema proyectado mediante el autoabastecimiento del combustible, mediante la generación / fabricación de la biomasa necesaria con la madera procedente de la masa forestal municipal, consiguiendo un ahorro directo en el precio del combustible. Esto además se traduce en una oportunidad de negocio local y garantizar un mantenimiento correcto de los montes.<br><br>Se tiene financiado el 70-80 % del coste del proyecto, (360.000 €+ I.V.A) y se calcula un ahorro de 25.000 euro/anuales en combustible y gastos de mantenimiento, etc…. | Iraunkortasun teknikoak hitza hartzen du 2011n garatutako proiektuen berri emateko:<br><br>▪ **Energi Berriztagarriak**: Traña-Matienako eskoletako berogailu eta A.C.S eskaria asetzeko district heating berogailu sistema, biomasa erregaiaren bidez, ezartzeko proiektu bat dago.<br>Era berean, instalazio honen bidez, eskoletako hainbat higiezinetan ere berogailu sistema hau ezarriko litzateke: erabilera anitzetako eraikinaren aldageletan, frontoian eta haurtzaindegietan baita ere.<br><br>Abadiñoko Udaletxeak, baso-eremu handia du bere jabetzapean. Hau dela eta, eta proiektatutako sistemari balore handiagoa emateko asmoz, erregaiaren auto-hornikuntza aztertzen ari da, udal baso-masatik ateratako egurraren bidez, beharrezko biomasa sortzeko.<br>Horrela, erregaiaren prezioan aurrezte zuzena lortuko litzateke. Era berean, lekuko salerosketa piztuko litzateke eta mendi zein basoen mantentze zuzena sustatu ere bai.<br><br>Proiektuaren %70-80a finantzatzea lortu da (360.000 €), eta erregaietan aurreztuko den kopurua, urtero 25.000 euro ingurukoa izango zela kalkulatzen da, erregaian eta mantentze gastuetan. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Polideportivo:** El proyecto está ejecutado. Al lado del frontón se ha edificado un recinto multiusos. Es un espacio cubierto para actividades extraescolares y disponible para el conjunto del municipio.<br>Faltan algunos detalles pendientes de la financiación del Gobierno Vasco. Además, con la financiación solicitada a éste, se espera poder acondicionar la zona de la estación, donde se tiene previsto poner canastas y acondicionar un rocódromo. | ▪ **Polikiroldegia:** Proiektua eginda dago. Frontoiaren alboan erabilera anitzetako eraikina altxatu da. Estalita dagoen gunea da eta eskolaz kanpoa ekintzak bertan garatuko dira baina gainontzeko herritarren erabilerarentzako ere zuzenduta dago.<br>Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa lortzen denean, falta diren detaileak egingo dira. Subentzio honekin gainera, geltoki aldeko zonaldea egokitzea espero da, saski bat eta rokodromo bat kokatzeko asmoa dago. |
| ▪ **Caudal del rio:** Se quiere complementar en la parte de abajo lo que se ha hecho en la parte de arriba para formar un conjunto recreativo y de esparcimiento, pero se trata de una zona inundable. En Mutsaraz se ha llevado a cabo porque se consideraba más prioritario.<br>Se debate sobre la inundabilidad de la zona y la posibilidad de habilitar zonas de esparcimiento (barbacoas…), aunque el proyecto depende de la financiación que se consiga. | ▪ **Errekaren emaria:** Beheko partea goian egindako obra berdinarekin osatu nahi da, non olgetarako eta aisialdirako gunea kokatu nahi den, baina zonaldeak uholde arriskua du. Muntsarantzen ordea obra hau egin da lehentasun handiagoa eman baitzaio.<br>Zonaldeak duen uholde arriskuari buruz eztabaidatzen da eta bertan aisialdirako gune bat jartzearen aukeraren inguruan. Dena den lortzen den finantziazioaren menpe dagoen proiektua dela adierazten du azkenik Udaletxeak. |
| ▪ **Guardería:** Es un tema pendiente de asignación presupuestaria, aunque el proyecto está ya finalizado. Se reconocen las carencias de los módulos actuales y los problemas de gestión.<br>El proyecto tiene la ventaja de la eficiencia energética y de la confortabilidad. La amortización sería en tres años. Se plantea la conveniencia del emplazamiento futuro: Moverlo conlleva más gastos (500.000 euros más), a pesar de lo cual se reconoce el ideal de un único edificio | ▪ **Haurtzaindegia**: Aurrekontuen esleipenaren zain dagoen gaia da, proiektua jadanik eginda dagoen arren. Gaur egungo moduluek dituzten gabeziak eta kudeaketaren inguruan dauden arazoak onartzen ditu Udalak. Proiektu honek ere efizientzia energetikoaren eta erosotasunaren abantaila du. Amortizazio hiru urtekoa litzateke. Etorkizunean moduluen leku aldatzeaz eztabaidatzen da. Tokiz aldatzeak gastu gehiago suposatzen duen arren (500.000 euro gehiago), eraikin |

| | |
|---|---|
| centralizado en el recinto escolar y no aislado, pero es una competencia de Educación de Gobierno Vasco. El Ayuntamiento ha visitado diferentes proyectos sostenibles, ejecutados con "sistemas industrializados" para conocer los detalles y ventajas de dichas instalaciones.<br>Se explica que el proyecto se tiene previsto hacer en verano de 2012, por lo cual es probable que se retrasa algo la apertura del curso en la guardería. | bakarra egotea, eskola eremuan zentralizatua egongo zena, aukerarik egokiena litzateke, baina Eusko Jaurlaritzari dagokion konpetentzia da. Udaletxeak eraikin prefabrikatu ezberdinak ezagutu ditu hurbiletik, egitura mugikorren detaileak eta onurak aztertzearren.<br>2012ko udan proiektua burutzearen asmoa dagoela adierazten da, eta ondorioz hurrengo kurtsoko hasiera zertxobait atzeratzea posible litekeela. |
| **5. Acciones sostenibles comarcales** | **5. Eskualdeko Ekintza Iraunkorrak** |
| A continuación, Gestiker expone la situación de la sostenibilidad en el Durangesado explicando el desarrollo de los proyectos comarcales.<br><br>**- Proyecto Municipio-Empresa:** Se trata de un proyecto impulsado que tiene como finalidad incorporar la visión del tejido empresarial en la sostenibilidad municipal. En el 2010 se realizó un "Proyecto Piloto" para regular las actividades empresariales que no se ajustaban a la normativa legal y sostenible, en el que participaron varios municipios del Duranguesado, entre ellos Abadiño.<br>Entre 2011 y 2013 se dará continuación al "Proyecto Piloto" con empresas ya participadas en el primer paso del proceso, a las que se les practicará un seguimiento, y | Jarraian Gestikerrek eskualde mailara bideratzen du foroa, Durangaldean burutzen ari diren eta burutuko diren ekintzen berri emateko:<br><br>- **Udalerri-Empresa proiektua:** Udalerriko enpresak modu iraunkorrago baten lan egin dezaten egina da, udalerriko iraunkortasuna hobetu dezan. 2010an proiektu pilotu bat jarri zen martxan iraunkortasun araudiak betetzen ez zuten enpresak identifikatzeko. Bertan, Durangaldeko zenbait udal parte hartu zuten, hauen artean, Abadiño.<br><br>2011 eta 2013 urteen bitartean proiektu pilotu honi jarraipena emango zaio lehengo pausuko enpresei segimendua ezarriz, eta enpresa berriak proiektura |

| | |
|---|---|
| nuevas empresas que se incorporarán al mismo. | gehituz. |
| El ánimo del proyecto es que las empresas cumplan con la normativa legal y ambiental (y no sancionar). Un ciudadano comenta que algo parecido se ha hecho previamente con el comercio. | Proiektu honen helburua, enpresek araudi legala eta inguramen araudia betetzea da eta ez zigorra ezartzea. Herritar batek merkataritzarekin ere antzerako ekimen bat egin dela adierazten du. |
| - **Proyecto Agenda Escolar:** Se reconoce como un compromiso y un plan de acción de la comunidad educativa para trabajar dentro de la Agenda Local 21.<br>La temática de este curso versa sobre el consumo de los productos de la tierra, a partir de la cual se desarrollarán diversas acciones (video-foros, visitas…), así como encuentros para implicar en la iniciativa a diferentes colectivos (profesores, familias y ayuntamientos). | - **Eskola Agenda 21 proiektua:** Hezkuntza elkartearen ekintza plana da, TA21aren barnean lan egiteko.<br>Kurtso honetako gaia, lur produktuetako kontsumoan datza. Gai hau irizpide harturik zenbait ekintza burutuko dira (bideo-foroak, bisitaldiak…), hala nola bestelako agenteen (irakasleak, familiak eta udaletxeak) inplikazioa lortzeko zenbait elkargune eta ekimen. |
| El Alcalde comenta que se realizan dos foros con los chavales de los centros que participan en Agenda 21 Escolar.<br>Se trata de hacer accesible y comprometer la figura del Alcalde y del Ayuntamiento con los centros educativos (alumnos/as). | Alkateak, Eskola Agenda 21aren parte diren zentroen ikasleekin urtero pare bat foro egiten direla gaineratzen du.<br>Honen helburua Alkatea eta Udaletxea, hezkuntza zentroetan murgiltzea eta hauen jarduerarekin konprometitzea da batik bat. |
| - **Plan de Acción Comarcal:** Se presenta el proyecto sobre el diseño de un Plan de Acción Comarcal, que trata de integrar en un Plan común las acciones y proyectos de los 11 municipios de la comarca, con repercusión comarcal para poder trabajarlos de manera conjunta, y agilizar así los trámites para lograr resultados más tempranos. | - **Eskualde Ekintza Plana:** Eskualde Ekintza Plana diseinu berriaren proiektua aurkezten da foroan. Plan honen helburua, eskualdeko 11 udalek komunean dituzten ekintzak eta proiektu berdinen bilketan datza. Horrela, eskualdean eragina duten ekintza hauek batera landu ahal izango dira, emaitzak azkarrago lortu ahal izateko. |

| | |
|---|---|
| | |
| **6. Propuestas Sostenibles Municipales para el 2012** | **6. 2012 urterako Udal Proposamen Iraunkorrak** |
| Toma la palabra el técnico de sostenibilidad para exponer el programa sostenible que el Ayuntamiento tiene previsto desarrollar durante el 2012:<br><br>▪ **Calefacción en los colegios de Traña-Matiena y Zelaieta:** Es un proyecto que se va a ejecutar en ambos centros. En Zelaieta la inversión es menor y más fácil.<br><br>▪ **Luminarias y gasto eléctrico:** Se explica el alto coste que supone para el Ayuntamiento el tema del alumbrado público y la necesidad de ahorro. Es un tema que se está acometiendo desde hace años.<br>Se van a cambiar las bombillas tradicionales por tecnología LED, que es la que permite ahorrar más, un 80 % concretamente.<br>También se está realizando acciones de “telegestión” para optimizar el alumbrado (reducir potencias en momentos determinantes).<br>El alumbrado más antiguo está en Zelaieta, por lo que se ha hecho un estudio de sustituir estas luminarias y se ha pedido financiación para ejecutarlo.<br>Ciertos barrios demandan más iluminación pero la inversión es muy costosa y la solución no parece ser fácil. | Iraunkortasun teknikoak hartzen du hitza 2012an Udalak garatzeko asmoa duen Iraunkortasun Programa azaltzeko.<br><br>▪ **Traña-Matiena eta Zelaieta eskoletako berogailuak:** Bi zentroetan garatuko den proiektua da. Zelaietako inbertsioa txikiagoa eta errazagoa izango da.<br><br>▪ **Gastu elektrikoa eta argiteriak:** Argiteri publikoak Udaletxearentzat suposatzen duen gastu itzela azaltzen da eta honen inguruan aurreztearen garrantzia azpimarratzen da. Urteetan jorratzen ari den gaia da.<br>Betiko bonbillen ordez tekonolgia LED ezarriko da orain, zeinek aurrezte handiena ahalbideratzen duen, %80a zehazki.<br>Bestalde, telegestio ekintzak bultzatzen ari dira argiteria optimizatzeko asmoz (momentu konkretuetan potentzia gutxitzea).<br>Argiteriarik zaharrena Zelaieta auzokoa da, beraz argi hauek aldatzeko azterketa bat egin da eta proiektua gauzatzeko diru-laguntzak ere eskatu dira.<br>Zenbait auzoek argiztapen handiagoa eskatzen dute baina itzelezko inbertsioa suposatzen du eta konponbidea ez dirudi erreza. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Gerediaga y farolas fotovoltaicas:** Entre el estudio y las pruebas realizadas, se está buscando la forma de mejorar el entorno. | ▪ **Gerediaga eta farola fotoboltaikoak:** Garatutako azterketaren eta egindako proben bitartez zonalde ingurua hobetzeko modua bilatzen ari da. |
| ▪ **Vehículos eléctricos:** El Ayuntamiento quiere ser ejemplo de esta iniciativa. Se ha pensado en instalar cinco puntos de recarga, a pesar de que en Eroski ya existen varios. La idea es comprar coches eléctricos para flota municipal en el futuro. | ▪ **Ibilgailu elektrikoak:** Ekimen honen eredua izateko asmoa du Udaletxeak. Eroskin jadanik horrelakoak dauden arren, Udalerrian zehar bost karga puntu ezartzean pentsatu da. |
| ▪ **Instalación de placas solares fotovoltaicas en edificios municipales:** Se han instalado placas solares fotovoltaicas con sistema *'Grid Invert'* en varios edificios del municipio (Casa de Cultura 'Errota' y edificio Multiusos). El excedente que se acumula se le "vende" a Iberdrola que tiene obligación de comprarlo. | ▪ **Etorkizunean udal flotarentzako kotxe elektrikoak erostea da ideia:** Udalerriko eraikin batzuetan ('Errota' Kultur Etxea eta Erabilera Anitzetarako eraikina) *'Grid Inverted'* sistema daramaten plaka solar fotoboltaikoak ezarri dira. Metatzen den soberakinak Iberdrolari saltzen zaizkio, zeinek hauek erosteko obligazioa duen**.** |
| ▪ **Proyectos de urbanización:**<br>• ***Zelaieta***: la zona tiene carencias importantes, por lo que se trata de uno de los proyectos de mayor envergadura. El objetivo es mejorar las redes de abastecimiento y suministro además de todo el entorno en accesibilidad.<br>• ***Verín***: la zona está en fase de anteproyecto.<br>• ***Plaza Laubideta***: se está esperando la partida presupuestaria de un proyecto ya aprobado.<br>• ***Edificio municipal*** (casa consistorial): se reconoce la necesidad de mejorar y ampliar el actual edificio del Ayuntamiento (falta de ascensor, falta de mobiliario, falta de espacios…), que además de haberse | ▪ **Urbanizazio proiektuak:**<br>• ***Zelaieta***: gabezi inportanteak ditu zonaldeak, horrexegatik garatzear dauden proiektuetatik garrantzitsuenetarikoa da hau. Zonaldeko horniketa sareak eta inguruko irisgarritasuna hobetzea dira helburuak.<br>• ***Verín***: aurreproiektu fasean dago zona.<br>• ***Laubideta Plaza***: onartuta dagoen proiektua gauzatzeko aurrekontuen esleipenaren zain.<br>• ***Udal Eraikina*** (Udaletxea): oraingo udaletxearen eraikina handitzeko eta hobetzeko beharra azaltzen da (ez dago igogailurik, altzariak falta dira, espazio falta dago...), zeinek gainera ez ditu irisgarritasun |

| | |
|---|---|
| quedado pequeño no cumple la ley de accesibilidad. La idea es acometer la reforma en esta legislatura a partir del desbloqueo de las normas subsidiarias, que también potenciará la construcción de viviendas para un municipio que espera llegar a 9.000 habitantes a medio plazo. | arauak betetzen. Ideia, legislatura honetan eta sorospideko arauak desblokeatzen direnen, berrikuntza burutzea da. Gainera azken hauek etxebizitza sozialen eraikuntza sustatuko dute, epe ertainean 9.000 biztanle izatera helduko den udalerri batentzako. |
| **7. Propuestas ciudadanas Sostenibles para 2012** | **7. 2012rako Herri-proposamen Iraunkorrak** |
| Desde la consultora se anima a que los ciudadanos/as comenten sus ideas, sugerencias, propuestas:<br><br>• **Sobre la luz de la biblioteca…** un ciudadano se queja de la poca luz que hay. Se recoge la inquietud.<br><br>• **Sobre los bidegorris…** Un ciudadano pregunta el porqué de haber hecho el carril por el centro y los coches por los laterales. El técnico asume su responsabilidad en la decisión. Se comenta que falta una segunda parte del proyecto. El carril va por el centro por falta de espacio (como ocurre en otros lugares). El ciudadano insiste en el peligro del sistema para la bicicleta y en poner el bidegorri en | Kontsultoratik ideia, proposamen zein iradokizunak egitera animatzen zaie bertaratutako herritarrei:<br><br>• **Liburutegiaren argiaren inguruan…** herritar batel dagoen argi eskasa salatzen du. Eskaera jasotzen da.<br><br>• **Bidegorrien inguruan…** Bidegorria erdian ezartzearen zergatia galdetzen du beste herritar batek. Teknikoak erabakiaren erantzukizuna bere gain hartzen du. Proiektuaren bigarren fase bat falta dela esaten da. Espazio faltagatik doa bidegorria erditik (beste tokietan egiten den bezalaxe). Herritarrak neurriak duen arriskua errepikatzen du eta bidegorria alde batean kokatzea eskatzen du. |

| | |
|---|---|
| el lateral. El alcalde indica que van a estudiar la opción de cambiar el emplazamiento actual del bidegorri y ponerlo en el lateral. | Alkateak, oraingo kokapena aldatzearen eta bidegorria albo batera ezartzearen planteamendua aztertuko dela ziurtatzen du. |
| • **Sobre el parking para bicicletas…** Un ciudadano demanda la construcción de un parking para bicicletas. Incluso se sugiere el uso de bicicletas municipales. Sobre el parking no hay problema y sobre el uso de bicicletas municipales se ha valorado en el Ayuntamiento pero se conocen algunas pruebas que no han funcionado. La experiencia de Amorebieta habla de vandalismo y retrae al Ayuntamiento. | • **Bizikletentzako parkingaren inguruan…** Herritar batek bizikletentzako parking bat egitea eskatzen du. Horrez gain, udal bizikleten erabilpena proposatzen da. Parkingaren gaiari dagokionez Udaletxeak arazorik ez dagoela dio, eta udal bizikleten erabilpena pentsatu egin zela gaineratzen du baina beste herrietan arrakastarik izan ez duela. Zornotzan bandalismo ekintzak gertatu dira honen inguruan eta Udala atzera botatzen du horrek. |
| • **Sobre el autobús a Garai…** Otro ciudadano comenta que el autobús a Garai parece desaprovechado y que por tanto se podría plantear opciones más económicas (taxis o furgonetas). El Ayuntamiento, ha solicitado a las diputaciones aumentar la frecuencia del itinerario que va a Vitoria. | • **Garaiko autobusaren inguruan…** Herritar batek garaiko autobusa desprobetxatu egiten dela dirudiela dio eta beraz aukera ekonomikoagoak bila zitezkeela (taxia edo furgoneta). Udaletxeak bere aldetik, Gasteizerako autobusaren frekuentzia handitzea eskatu die Aldundiei. |
| • **Sobre la ruta de la Universidad de Mondragón…** También se ha solicitado desde el Ayuntamiento integrar a Matiena en la ruta que de la Universidad de Mondragón pero de momento la demanda ha sido denegada. | • **Arrasateko Unibertsitatera doan ibilbidearen inguruan…** Matiena Arrasateko Unibertsitatera doan ibilbidean sartzea eskatu du baita ere Udaletxeak, baina momentuz eskaerari ezetz esan zio Aldundiaren aldetik. |
| • **Sobre la iluminación del nuevo túnel…** Un ciudadano plantea la falta de luz en la esquina del nuevo túnel debido a que no hay farola. También se | • **Tunel berriaren argiztapenaren inguruan…** Herritar batek, farola baten falta dela eta tunel berriaren izkinan dagoen argiztapen falta salatzen du. Aldapa |

| | |
|---|---|
| indica la conveniencia de poner "pasamanos" en las zonas más inclinadas del entorno del túnel.<br><br>• **Sobre el depósito de aguas…** El Ayuntamiento explica que hay una negociación con la Diputación para dirimir competencias y clasificar como municipal o no el tramo del entorno del depósito de cara a habilitar aceras, barandillas, badenes…<br><br>• **Sobre los jardines y parques…** Se pide una mayor preservación de los mismos, asó como vigilar mejor el tema de los perros y sus excrementos.<br><br>• **Sobre los coches mal aparcados…** Se pide también mejorar la vigilancia y control de tramos para que no queden obstruidos por coches que aparcan mal. El Ayuntamiento reconoce que se tiene que mejorar la eficiencia del trabajo de la policía municipal. | handiko tunel inguruko zonetan esku-bandak ezartzea ere ondo legokeela gaineratzen du.<br><br>• **Ur depositiuaren inguruan…** Depositiuaren inguruko zonaldean espaloiak, barandak , sakanguneak, etab. Kokatzeko asmoa dela eta, Udaletxea Aldundiarekin negoziatzen dabil lekuaren konpetentzia nori dagokion erabakitzeko.<br><br>• **Lorategi eta parkeen inguruan…** Hauek hobeto babestea eskatzen da, hala nola txakurren arazoa eta hauen kaken bilketarena gehiago zelatatzea.<br><br>• **Txarto aparkatutako kotxeen inguruan…** Txarto aparkatzen duten kotxeen zelatatzea ere hobetzea eskatzen da, askotan oinezkoentzat oztopoa baitira. Udaletxeak onartu egiten du honen inguruan udal poliziaren efizientzia hobetu behar dela. |
| **8. Próximos pasos y Despedida** | **8. Agurrak eta hurrengo urratsak** |
| Una vez finalizada la exposición, se comunica la metodología del levantamiento del acta, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad de Abadiño.<br><br>Se recuerda que los asistentes pueden apuntarse a una base de datos para recibir información y convocatorias | Behin aurkezpena bukatuta, gertatutakoa eta proposatutakoa aktan jasota geratuko dela gogoratzen zaie bertaratutakoei. Honez geroztik, akta Udaletxera bidali egingo da, guztiontzako publikoa izanik.<br><br>Etorkizunean ospatuko diren parte-hartze prozesuen informazioa eta deialdia jasotzeko, bertaratutako |

| | |
|---|---|
| de procesos participativos futuros.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | herritarrak datu base batean apuntatu daitezkeela gogoratzen da.<br><br>Guztion etorrera eta parte-hartzea eskertu egiten da, bakoitzaren proposamenak, ideia berriak eta ardurak baita estimatuz. |



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA